

**5X5[®] BILBAO programan parte hartuko
duten diseinuko profesionalak hautatzeko
deialdia**

1. ZIOEN AZALPENA
 2. DEIALDIAREN XEDEA
 3. ERANTZUTEN ERONKAK
 4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK
 5. HARTZAILEENTZAKO ONURAK
 6. HAUTAGAITZA AURKEZTEA
 7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA
 - 7.1. HAUTAGAITZARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA
 - 7.2. ADMINISTRAZIO AGIRIAK
 8. HAUTAGAITZAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURA
 9. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEAK ETA ZENBATEKO EKONOMIKOA ITZULTZEA
 - 9.1. PARTE-HARTZAILEEN BETEBEHARRAK
 - 9.2. EZ-BETETZEAK
 10. ORDAINSARIA ORDAINTZEKO MODUA
 11. JABETZA INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK
 12. IRUDI ETA ZABALKUNDERAKO ESKUBIDEAK
 13. DATU PERTSONALEN BABESA
 14. KONFIDENTZIALTASUNA
 15. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA
-
- I. ERANSKINA: ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA
 - II. ERANSKINA: 5X5® BILBAO PROGRAMAREN GUTXI GORABEHERAKO EGUTEGIA

1. ZIOEN AZALPENA

BILBAO EKINTZA, EPELeK (aurrerantzean, "BILBAO EKINTZA") Bilboko urian aberastasun ekonomiko eta soziala sortzea du helburu, eta, horretarako, inbertsioak egiteko, enpresak sortzeko eta bertan hazteko, bisitariak eta talentua erakartzeko gaitasunak indartzen dihardu eta laneratzeko aukerak hobetzen ditu.

Ingurumari horretan, BILBAO EKINTZAK Espezializazio Adimenduneko Unitatea dauka Uriaren Garapeneko Sailaren barruan. Sail horrek, lehenetsuzko helburuen artean, uriaren garapen ekonomikoa landuko du, bereziki hazkunde bidean dauden sektore jakin batzuen aldeko apustua eginez, espezializazio adimendunaren estrategiaren barruan, besteak beste diseinuaren aldeko apustua eginez. Horretarako, berariazko laguntza-programak babestu, diseinatu eta gauzatu ditu, eta, aldi berean, Bilbo arlo guztietan aurrendari bilakatzen duten prozedura berritzaileak ahalbidetzen ditu.

Diseinuaren sektorea Bilboko udalerriko sektore estrategikoetako bat da, Euskadi Sortzailea ekimenaren ildoan, hau da, Euskadin, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2030eko Planaren barruan identifikatutako aukera-esparruetako baten ildoan. Horregatik, Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza udal-erakundea dela bitarte, diseinuaren sektorea indartzea du helburu, uriari hazkunde ekonomikoa eta kalitatezko enplegua ekartzen dioten berrikuntza-ekosistemak sortzen lagunduz.

Era berean, enpresek merkatu-premia berriei eta gizartearen sarritako aldaketari etenik gabe erantzun behar dietenez, berrikuntza, sorkuntza eta diseinua enpresen strategiaren egiturari txertatuz, enpreson lehiarako abantaila handitu daiteke.

Hori dela eta, Bilboko uria jakitun da ekosistema berritzaileak sortuko badira, lankidetzaren eta nazioartekotze-estrategia behar-beharrezkoa dela, eta, horregatik, Unescoren Hiri Sortzaileen Sareko kide da 2014. urtetik, Diseinuaren kategorian, beste berrogeita zazpi hirirekin batera; horietako bat Kortrijk hiria dugu (Flandria, Belgika).

Horren haritik, Bilbao Ekintzak eta Designregio Kortrijk erakundeak, bi-biak Unescoren Hiri Sortzaileen Sarearen bidez loturik daudela, lankidetzaren eta koordinazio-esparrua ezarri dute Bilbon 5X5[®] izeneko programa gauzatzeko. Designregio Kortrijk erakundeak 80 enpresa baino gehiagotan garatu du programa hori azken 20 urteotan.

5X5[®] BILBAO PROGRAMA

Designregio Kortrijk erakundeak bereanbere garatutako metodologian oinarriturik, 5X5[®] BILBAO programa ondokoan datza: urtebetean, diseinuaren arloko profesional batek ETE bati lagunduko dio produktu/zerbitzu berriren bat edo haren funtsezko berrikuntza garatzen, diseinuaren metodologiak erabiliz eta prototipo bat garatzeko helburuz. Prototipo hori erakusketa batean aurkeztuko da programa amaitzean.

Hauexek dira 5X5[®] Bilbao programaren helburu orokorrak:

1. Bost euskal enpresaren enpresa-gaitasunak garatzea, zabaltzea eta horietan sakontzea.
2. Enpresei diseinu-profesionalekin batera modu egituratu eta sistematizatuan lan egiteko metodologiak eskaintzea.
3. Diseinuaren eta enpresaren arteko harremana nabarmentzen duten ageriko emaitzak eskaintzea.
4. Diseinuaren kultura eta diseinu-prozesua sustatzea, enpresa-ehunean balio erantsia den aldetik.
5. Bilboko uriak daukan diseinuari eta berrikuntzari lotutako irudia indartzea, eta, hartara, udalerriko diseinuaren sektorearena.

5X5[®] BILBAO programaren esparruan, ez Bilbao Ekintzak, ez Designregio Kortrijk erakundeak diseinu-proiektua garatzeko baliabide propiorik ez dutenez, Bilbao Ekintzak bere gain hartuko du Bilboko diseinuaren arloko hiru profesional hautatu eta kontratatzea, eta Designregio Kortrijk erakundeak, berriz, Kortrijk-eko bi profesional eskainiko ditu, guztira, bost euskal enpresarekiko lankidetzan jardun dezaten.

Horrez gain, Bilbao Ekintzak eta Designregio Kortrijk (DRK) erakundeak programaren kostuak koordinatu eta finantzatzen dituzte, eta prozesu osoa babesten dute, hasierako ideiatik prototipoa erakusten den arte. Era berean, eurentzat gordetzen dute 5X5[®] BILBAO programa zeinahi unetan aldatzeko eskubidea, bai eta programa eteteko edo bertan behera uzteko eskubidea ere, bi erakundeon kontroletik kanpoko salbuespenezko inguruabarrak gertatzen badira. Kasu horietan, Bilbao Ekintza ezingo da inola ere gertatutakoaren erantzuletzat hartu.

II. ERANSKINEAN, 5X5[®] BILBAO programa 2024-2025 aldian garatzeko aurreikusi den egutegia ageri da.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da Bilbao Ekintzak Bilboko diseinuaren arloko hiru profesional hautatzeko prozedura ezartzea, hiru euskal enpresak 5X5[®] BILBAO programaren esparruan proposatutako erronkari erantzun diezaioten. Aipaturiko programa lankidetzan garatu da Designregio Kortrijk erakundearekin.

Hainbat kluster-elkarterekin eta, bereziki, EIDE - Euskal Diseinuaren Elkartearekin lankidetzan, diseinuaren metodologiak erabiliz produktu/zerbitzu berriren bat edo funtsezko berrikuntza bat garatzeko interesa duten enpresak gogotik bilatu eta hautatu ditu Bilbao Ekintzak.

3. ERANTZUTEKO ERRONKAK

Euskal enpresek mahairatuta, hauexek dira Bilboko diseinuaren arloko profesionalek erantzun beharreko diseinu-erronkak:

- 1. erronka: ingurumen-bioteknologiaren sektoreko produktu eko-berritzailerren bat berriro diseinatzea.
 - Helburua: hobekuntza estetikoa diseinatzea hiri-ingurunean integratzeko, jasagarritasuna hobetzea material berriak aukeratuz eta, material horiei eusteko, erabiltzailearen esperientzia erraztea.
- 2. erronka: garbiketa profesionaleko produktu-lerro berri bat diseinatzea.
 - Helburua: jasagarritasunaren eremuan, kokapena edo posizionamendua hobetzea, enbalaje mota berri bat (packaging) eta merkaturatzeko estrategia egokia erabiliz.
- 3. erronka: mugikortasun pertsonalari lotutako laguntza-produktu bat berriro diseinatzea.
 - Helburua: eraginkortasun ekologikoa eta ekonomikoa hobetzea, osagaiak, materialak eta prozesuak optimizatuta tokiko ekoizpena bultzatzeko.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Nortasun juridikoa duen diseinuaren arloko edozein profesionalek edo diseinu-estudiok parte hartu ahalko du ekimen honetan, baldin eta jarduera Bilbon egiten badu. Zehazki, ondokoek parte har dezakete:

- Banakako enpresaburuek
- Enpresa txiki eta ertainek (ETEak)

Ondorio horietarako:

- Diseinuko profesionaltzat hartuko dira Europar Batasunaren lurraldearen barruan, lanbidean jarduteko legezko ahalmena duten pertsonak, baldin eta jarduera profesionala diseinuaren esparruan egin dutela frogatzen badute:
 - Pertsona fisikoei doakienez, gutxienez, 5 urteko esperientzia izan beharko dute antzeko ezaugarriak dituzten proiektuetan.

- Pertsona juridikoei doakienez, programan parte hartzen duten pertsona guztiek, gutxienez, 5 urteko esperientzia izan beharko dute antzeko ezaugarriak dituzten proiektuetan.
- Enpresa txikiaren (ETE) definizioa aintzat hartuko da Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduak dioenari jarraikiz.
- Jarduera Bilbon egiten duela ulertuko da sozietatearen helbidea edo, behintzat, lantoki bat Bilboko udalerrian duela egiaztatzen badu.

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira administrazioak, sozietate publikoak edo halakoei atxikitako edo horien mendeko erakundeak.

Era berean, parte hartzeko baldintza izango da pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasun osoa izatea, eta egunean izatea zerga-betebeharrak dituzten herri-administrazioekiko betebeharrak, bai eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea ere.

Beste alde batetik, ezingo dute parte hartu Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean (aurrerantzean, SPKL) jasotako kontratazio-debekuren bati loturik dauden pertsona fisiko edo juridikoek.

Baldintza horiek guztiak 5X5[®] BILBAO programa garatzen den bitartean bete beharko dira.

5. HARTZAILEENTZAKO ONURAK

5X5[®] BILBAO programan parte hartzen duten enpresek hautatzen dituzten diseinuaren arloko profesionalak onura hauek lortuko dituzte:

- Enpresa eta/edo sektore berriekiko harremana.

Hautatzen den diseinuaren arloko profesionalak 12 hilabetez lan egingo du ETE batekin, modu egituratu eta erazkoan, aurreikusi gabeko premia berriak bilatzeko eta irtenbide berritzaileak ikertzeko diseinuaren metodologiak erabiliz.

- Gaitasunak sendotzea.

Programa garatzen den bitartean, gutxienez, tailer batean parte hartzea izango du hautatutako gainerako enpresa eta diseinatzaileekin batera. Hasteko eta bat, sormen-tailer bat eta adituen eskutik beste tailer bat egitea aurreikusten da.

- Ikusgarritasuna eta zabalkundea.

5X5[®] BILBO programa eta Unescoren hiri sortzaileen sareko parte-hartzaileen ikusgarritasuna landuko da, Bilbao Ekintza, Designregio Kortrijk, EIDE – Euskal Diseinu

Elkartearen eta ekimenean parte hartzen duten beste eragile laguntzaile batzuen komunikazio-kanalak baliatuz. Gainera, garatutako kontzeptua edo prototipoa jendaurrean aurkeztuko da Bilbao Bizkaia Design Week 2025 ekimenaren esparruan egin litekeen azken erakusketa batean.

- Kontraprestazio ekonomikoa.

Diseinuaren arloko profesionalak 10.000 euroko ordainsaria (BEZa barne) jasoko du proiektua garatzeagatik. Zenbateko horren barruan aintzat hartuta daude bidaia-gastuak, dietak eta proiektuari lotutako beste edozein gastu.

6. HAUTAGAITZA AURKEZTEA

Proposatutako erronkei erantzuteko proposamenik aurkeztu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoei I. ERANSKINA osorik bete beharko dute: ESKABIDEA eta ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA. Gero, nahitaezko dokumentazioarekin batera, helbide elektronikoko honetara bidali behar dira: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus.

Oinarriak eta nahitaezko dokumentazioa Bilbao Ekintzaren webgunean argitaratuko dira: <https://www.bilbaoekintza.eus/eu/proiektuak>

Hautagaitzak aurkezteko epea data honetan amaituko da: **2024ko uztailaren 29a, 11:00etan.**

Zalantzak galdetzeko aukera egongo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino astebete lehenagora arte. Helbide elektronikoko honetara bidali beharko dira zalantzok: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus.

Eskabidea aurkeztuz gero, interesdunak berariak eta eraz onartzen dituzten oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak eta betebeharrak.

7. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

7.1. Hautagaitzari buruzko dokumentazioa

- Programan parte hartzeko motibazio-gutuna (gehienez, 2 orrialde). Bertan adierazi behar da, kasurako, interesdunaren esperientziak hautagaitza gaitzen duela eta proposatutako erronketako bati erantzuteko interesa baduela.
- Curriculum Vitae-a (gehienez, 3 orrialde). Pertsona juridikoei dagokienez, proiektuan parte hartuko duten diseinuaren arloko profesional guztien curriculumak aurkeztu beharko dira. Parte-hartzaile guztiek esperientziaren baldintza bete beharko dute.

- Lan nabarmenen portfolioa, estudioak edo profesionalak ordura arte egin dituen eta prozedura honen xede den lanari lotutakotzat jotzen diren eta proposatutako erronkekin ezkon daitezkeen bost lan, gehienez ere, biltzen dituen. Dokumentu horren luzera ez da 10 orrialdetik gorakoa izango. Nahi izanez gero, web-orri baterako edo antzeko baterako esteka adierazi ahalko da, proiektu edo azterketa-kasu bakoitza sakonago aztertzeko.

Aurreko dokumentazioa PDF formatuko 3 fitxategi bereizitan bidaliko da, arestian aipatutako helbide elektronikora.

Hautagaitza bakarra aurkeztea izango da parte-hartzaile bakoitzeko, pertsona fisikoak zein juridikoak izan. Hautagaitzan, lehenetsuneko erronka edo erronkak adieraziko dira.

7.2. Administrazio-agiriak

1. I. ERANSKINA: ESKABIDEAREN INPRIMAKIA eta ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, oso-osorik beteta.
2. Direnak direlako herri-administrazioekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten jatorrizko ziurtagiriak, bai eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen dutenak ere, baldintza hori ofizioz egiaztatzeko baimena ematen denean izan ezik.

Bigarren atalean agertzen den dokumentazioa azkenean hautatzen diren profesionalak baino ez dute aurkeztu beharko.

Parte hartzeko proposamena aurkezten duen pertsonak edo pertsonak bere gain hartzen dute erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Edozelan ere, Bilbao Ekintzak beste edozein agiri edo informazio eskatu ahal izango die eskatzaileei, beharrezkotzat jotzen badu, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

Eskabideak jaso ondoren, osorik betetzen ez badira edo beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, hiru egun balioduneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua bidaltzen denetik zenbatzen hasita, akatsa zuzen dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, ohartaraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta espedientea artxibatu egingo dela, beste izapiderik egin gabe. Bilbao Ekintzak ez du eskabide horri buruzko esanbidezko ebazpenik eman beharrik izango.

8. HAUTAGAITZAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK ETA PROZEDURA

Diseinuaren arloko profesionalak hautatzeko prozesua honako etapa hauetan egingo da:

1. Hautagaitzen aurretiko hautaketa

Izangaiek parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, erronka bakoitzean aurkeztutako hautagaitzak balioetsiko dira. Horretarako, Bilbao Ekintzak balorazio-batzordearen gisako lantaldea osatuko du, Bilbao Ekintzako eta Designregio Kortrijk erakundeko teknikariek eta EIDE Euskal Diseinuaren Elkarteko langileek osatuta, aurkeztutako hautagaitzak irizpide hauen arabera ebaluatzeko:

IRIZPIDEA	DESKRIBAPENA	GEH. PUNTUAZIOA (50 puntu)
ADIERAZITAKO MOTIBAZIOA	Proiektua garatzeko erakutsi den interes-maila	12
IBILBIDEA	Proiektuan parte hartzen duten diseinuaren profesionalen lan-ibilbidea	12
ANTZEKO ERREFERENTZIAK	Proposatutako erronkaren antzeko ezaugarriak dituzten edo hari aplika dakizkiokeen ezaupideak dituzten proiektuak garatzen izandako esperientzia.	20
GENEROA	Diseinuaren arloko emakume profesionalen parte-hartzea proiektua gauzatzean	6

Proposatutako erronka bakoitzeko puntuaziorik handiena duten hautagaitzei dagokienez, aurrehautatutako hautagaitzen zerrenda laburra egingo da (gehienez ere, 3 hautagaitza, erronka bakoitzeko). Aurrehautaketaren berri emango zaie hautagaitzen ordezkariari posta elektronikoz.

Balioespen-irizpideak aplikatu ondoren, hautagaitza bat bera ere egokitzen ez bada, deialdia bete gabe utzi ahalko da.

Bilbao Ekintzak beretzat hartzen du erronketako jakin batean aurkeztu diren hautagaiak beste erronka bati erantzuteko zerrenda laburrean jasotzeko proposamena egiteko eskubidea, betiere hautagaien ezaugarriak enpresak proposaturiko beharrei eta erronkei erantzuteko egokitzen jotzen badira.

2. Hautagaitzaren defentsa

Zerrenda laburrean ageri diren profesionalak aurkezpen bat egitera gonbidatuko dira, komeni den formatuan. Aurkezpen horretan, nor bere hautagaitza defendatu ahalko du, balorazio-batzordearen eta erronka bakoitza proposatu duen enpresaren aurrean.

Defentsa egin aurretik, enpresari eta proposatutako erronkari buruzko informazio zehatzagoa emango zaie.

Hautagaitza defendatzeko saioa egin ondoren, enpresak hautagaia egokitzat jotzen ez badu, ez du prozesuarekin jarraitu beharko.

Enpresak hautagai gisa aurkeztu dioten diseinatzailea hautatzen ez badu, hautagaia harremanetan jarri ahalko da beste enpresa batekin, azkenaren premiei eta/edo eskatutako ezaugarriei hobeto egokitzen bada.

3. Azken hautaketa eta enpresa eta diseinuaren arloko profesionala elkartzea

Hautagaitza defendatzeko saioa egin ondoren, enpresek adierazitako lehentasunak jakinda, balorazio-batzordeak enpresaren eta diseinatzaile egokienaren arteko azken elkartzea egingo du, eta horren arrazoia adieraziko du.

Profesionalaren azken hautaketa parte-hartzaileei jakinaraziko zaie parte hartzeko eskabidean adierazi duten posta elektronikoa dela bide.

Diseinuaren arloko profesional bera ezin izango da, inola ere, enpresa batekin baino gehiagorekin elkartu.

5X5[®] BILBAO programan parte hartuko duen diseinuaren arloko profesionala hautatu ondoren, kontratu bat sinatuko da aukeratutako profesionalaren eta Bilbao Ekintzaren artean. Kontratu horretan, diseinu-proiektua gauzatzeko baldintzak, epeak eta betebeharrak zehaztuko dira.

9. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEAK ETA ZENBATEKO EKONOMIKOA ITZULTZEA

9.1. Parte-hartzaileen betebeharrak

Diseinuaren arloko profesionalak konpromiso hauek hartuko ditu:

- Nahitaez bete beharko dira deialdi honetan araututako baldintzak.
- Aurrekontuaren esparruan, denbora ezin hobeto erabiltzea, emaitza zehatzak erdiesteko helburuz.
- Enpresarekin lankidetzan estuan lan egitea.

- Proiektuak irauten duen artean, diseinu-metodoak aplikatzea.
- Enkargua gauzatzea enpresarekin batera, eta elkarlan horrek produktu/zerbitzu berri baten diseinua edo funtsezko berrikuntza ekarriko du, proiektuaren helburuekin bat datorren diseinuaren metodologiak erabiliz.
- Aldian-aldian enpresarekin batzartzea, proiektuaren aurrerapena gainbegiratzeko eta beharrezko doikuntzak egiteko. Proiektuaren aurrerapena diseinuaren briefing saioan adierazitako proiektuaren plangintzaren eta helburuen arabera gainbegiratu eta ebaluatuko da.
- Enpresarekin komunikazio arina eta argia izatea.
- Proiektuaren garapenari eta egoerari buruzko informazioa aldizka ematea Bilbao Ekintzari, baita aurrerapen-dokumentuen bidez ere.
- Argitaratzeko eta komunikatzeko beharrezkoak diren dokumentuak edo informazioa ematea.
- Programaren azken aurkezpena joatea, eta, hala badagokio, funtsezko beste une batzuetara.
- Jendaurreko aurkezpena egitea 5x5[®] BILBAO programaren inguruabarrean. Data eta xehetasunak Bilbao Ekintzak zehaztuko ditu.

9.2. Ez-betetzeak

Honako deialdi honetan parte hartzen duten hautagaiak deialdian ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzen ez dituztela egiaztatuz gero, hautagaiak prozeduratik kanpo geratuko dira.

Beste alde batetik, enpresetako batek hautatutako diseinuaren arloko profesionalak Bilbao Ekintzarekin sinatutako kontratuko betebeharrak betetzen ez baditu –bertan jasota daude alderdi bakoitzaren betebeharrak–, profesionalak jasotako zenbateko ekonomikoa itzuli beharko du.

10. ORDAINSARIA ORDAINTZEKO MODUA

Enpresa bakoitzaren erronkari erantzuteko hautatu den diseinuaren arloko profesionalak 8.264,46 euroko ordainsaria + BEZa (10.000 eurokoa, BEZa barne) jasoko du diseinu-proiektua garatzeagatik. Zenbateko horren barruan kontuan hartuta daude bidaiari-gastuak, dietak eta 5X5[®] BILBAO programaren esparruan garatutako proiektuari lotutako beste edozein gastu.

Ordainketa-prozedura fakturazio elektronikoaren bidez egingo da, Bilbao Ekintza EPELek ezarritako baldintzetan. Diseinatzaileak hiru faktura igorriko ditu Bilbao Ekintzara, aurrerapen-dokumentuekin batera, beheko taulan adierazi diren mugarrien arabera:

Mugarriak	Fakturari erantsitako agiriak	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barik)	Zenbatekoa (BEZa barne)
Profesionalaren eta enpresaren arteko diseinu-aldiko <i>briefing</i> -a ixtea	Diseinuaren <i>briefing</i> dokumentua	1	2.892,56 €	3.500,00 €
Enpresak proposatutako diseinua baliozkotzea	Diseinuaren zuzendaritza espezifikoa definitzeko dokumentua	2	2.892,56 €	3.500,00 €
Programa amaitzea eta emaitzak Bilbon aurkeztea	Emaitzak aurkezteko dokumentua Bilboko azken erakusketan	3	2.479,34 €	3.000,00 €
		GUZTIRA	8.264,46 €	10.000,00 €

11. JABETZA INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK

SPKLren 9/2017 Legeak xedatutakoaren arabera, deialdi honetan parte hartzeak badakar jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak erakunde publiko kontratatzaileari lagatzea, betiere egileari datzekion eskubide moralak babestuta.

12. IRUDI ETA ZABALKUNDERAKO ESKUBIDEAK

Proposaturiko erronka bakoitzeko hautatzen den pertsona fisikoak edo juridikoak onartuko du Bilbao Ekintzak eta azkenean harekin elkartzen den enpresak diseinuaren arloko profesionalaren izena eta hari lotutako irudiak edo logoak erabili ahal izatea, zeinahi bide erabiliz eta soil-soilik erakunde-, publizitate- edo sustapen-helburuak betetzeko edo, bestela, hautatutako profesionalaren berri jendaurrean, inolako lurralde-mugarik eta denbora-mugarik gabe, gertaera horrengatik inolako ordainsaririk sortu gabe.

13. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarreko araudiak xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza EPELek jakinarazten du deialdi honetako eskarietan jasota dauden datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko dituela (sozietateak Bilboko (48001) Nafarroa kaleko 5. zenbakian dauka helbidea), jasotako hautagitzak kudeatu eta izapidetzeko helburuz.

Datuak behar den denboran gordeko dira bildu ziren helburua betetzeko, baita helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko ere.

Tratamendu horien oinarria tratamenduaren arduradun den Bilbao Ekintza EPELi emandako botere publikoak egikaritzea da.

Ez zaizkio datuak beste inori emango, legez derrigorrezkoa bada izan ezean. Ez da datuen nazioarteko igorpenik egingo.

Hauexek dira interesdunen eskubideak:

1. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko edo tratamenduaren aurka agertzeko eskubidea, tratamenduaren arduradunaren helbidera idatzi bat bidaliz, nortasuna aldeztu aurretik egiaztatuta.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea

BILBAO EKINTZA EPELek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, datos@bilbao.eus helbidera idatz daiteke datuen tratamenduaren gaineko informazio gehiago eske.

14. KONFIDENTZIALTASUNA

Deialdi honen esparruan sortutako informazioa ez da tratatuko bere eremuari dagokiona ez den beste ezertarako, eta biltzen dituzten datu pertsonalen zein enpresakoen konfidentziasuna bermatuko da, honako baldintza hauetan publizitatearen arloan jasotzen diren ahalmenak ezertan eragotzi barik.

Nolanahi ere den, aukeratzen den diseinuaren arloko profesionalen izenak, haien jarduera eta lorpen nagusiak zabaldu ahalko dira.

15. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA

Bilbao Ekintzak deialdi honetako baldintzak interpretatzeko eskubidea izango du, zalantzarik sortzen duen edozein egoera dela-eta; halakoetan, behin betiko erabakiak hartuko ditu.

II. ERANSKINA: 5X5® BILBAO PROGRAMAREN GUTXI GORABEHERAKO EGUTEGIA

5X5® BILBAO programa ondoko aldi eta mugarriei jarraituz garatuko da:

ALDIA	MUGARRIAK	BEGIZ JOTAKO DATA
Diseinuaren arloko profesionalen deialdia eta hautaketa	Deialdi irekia argitaratzea	2024ko uztaila
	Hautagaitzetako diseinatzaileen aurrehautaketa (zerrenda laburra)	2024ko uztaila-iraila
	Diseinatzailearen edo enpresa hautagaitzaren defentsa	2024ko iraila
	Enpresa bakoitzeko diseinuaren arloko profesionalaren azken hautaketa	2024ko iraila
Enpresa eta diseinatzailea elkartzea	Enpresa edo diseinatzaileak eta Bilbao Ekintzak lankidetzak akordioa sinatzea	2024ko urria
5X5® BILBAO programa abiaraztea (<i>kick-off</i>)	5X5® BILBAO programan parte hartuko duten diseinuaren arloko enpresen eta profesionalen aurkezpen ofiziala	2024ko urria
5X5® BILBAO programa garatzea	Diseinatzaile eta enpresa parte-hartzaileentzako sormen-tailerra (formatu mistoa, aurrez aurrekoa eta lineakoa)	2024ko urria
	Diseinuaren <i>briefing</i> dokumentua: proiektuaren diseinuaren eta ikuspegiaren proposamena, helburuak, espero diren emaitzak, eskura dauden baliabideak eta egutegia jasota	2024ko abendua

ALDIA	MUGARRIAK	BEGIZ JOTAKO DATA
	Diseinuaren prozedura (briefing-a gauzatzea): bilerak, aurrez aurrekoak edo online, diseinatzailea/enpresa, diseinu-bideak eta -ikuspegiak aztertzeko	2025eko urtarrila-martxoa
	Diseinuaren berariazko zuzendaritzaren definizioa: garatu edo gauzatu beharreko produktuaren/zerbitzuaren kontzeptua	2025eko martxoa
	Tailerra adituen eskutik (zeharkako alderdien inguruko trebakuntza)	2025eko apirila
5X5® BILBAO programaren amaierako erakusketa eta itxiera	Jendaurreko aurkezpenean erabiliko den prototipoa edo kontzeptua zehaztea	2025eko ekaina-uztaila
	Prozesuaren emaitzak jasotzen dituen aurkezpene ematea	2025eko urria-azaroa
	Emaitzen azken azalpena, erakusketa baten esparruan	2025eko azaroa

Adierazitako datak gutxi gorabeherakoak dira eta aldaketak egon daitezke. Bilbao Ekintzak programan parte hartzen duten guztiei jakinaraziko die programazio horretan edozein aldaketa gertatzen bada, bai eta behin betiko datak ere.